



## **EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO LEGEA BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO LEGE PROIEKTUA**

### **ZIOEN AZALPENA**

- | -

Konstituzioak herritarrei aitortzen die gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, zehazki, aldian aldiko bozketa unibertsal bidezko hauteskunderen bidez. Eskubide hori askatasun osoz gauzatu ahal izateko, oinarri-oinarrizkoa da hauteskunde-prozesua gardena, segurua eta objektiboa izatea, eta, gainera, prozesua aurrera eramateko orduan, hauteskundeetako ordezkari-tz-karguak lortu ahal izateko berdintasun- eta neutraltasun-printzipioak bete beharko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hauteskunde-prozesu demokratiko orok jarraitu beharreko printzipio eta berme horiek Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderen ekainaren 15eko 5/1990 Legean daude jasota; lege horrek garatzen du Autonomia Estatutua, eta kontuan izan behar da estatutuak autonomia-erkidegoari eskumen eskusiboa ematen diola gai hauetan: *“Eusko Legebiltzarrari, Batzar Nagusiei eta foru-aldundiei eragiten dien barruko hauteskunde-legedia arautzea, baina Estatutu honen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera Lurralde Historikoei dagozkien ahalmenei kalterik eragin gabe”*.

Gorago aipaturiko ekainaren 15eko 5/1990 Legea onartu zenetik, zenbait aldaketa izan ditu lege horrek, eta Eusko Legebiltzarreko lau legetan jaso dira: ekainaren 19ko 15/1998 Legea, urriaren 4ko 6/2000 Legea, martxoaren 28ko 1/2003 Legea, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Aldaketa horiek hauteskunderen buruzko euskal legea politikaren eta gizartearen egoerara egokitzeko egin dira, indarrean zen legediarekin bat jarritz. Gaur egun, ekainaren 15eko 5/1990 Legea indarrean sartu zenetik izan diren autonomia-erkidegoetako hauteskunde-prozesuen ondorioz ikasitakoak, oinarri-tz-ko zenbait gairi dagokienez Hauteskunderen buruzko gure Legeari eragiten dion 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Estatuko Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzkoa, hainbat aldiz aldatu izanak, eta orobat Konstituzio Auzitegiaren doktrinak eta Hauteskunde Administrazioak proposatutako gomendioek garbi utzi digute erabat komeni dela lege hori aldatzea.

Ekainaren 15eko 5/1990 Legean egin beharreko aldaketak jarraian aipatzen diren kontuen ingurukoak dira, eta duten garrantziagatik, xehekiago azalduko dira.

Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoan egindako azkeneko aldaketek Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legeari eragiten diote, eta, aipatu legea egokitu beharra eskatzen dute; izan ere, ez datoz lege horren artikuluetan esaten direnekin bat, eta lege horrek kontuan hartu ez dituen gai berri batzuk arautzen ditu.

Zehazki esanda, Hauteskundeen Araubide Orokorreko Lege Organikoan oinarritzakoak zein oinarritzakoak ez diren artikulua aldatzen dituen gai teknikoak eta hobetzeko gaien inguruan, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeari buruzko urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak indartzen du Eskualdeko Hauteskunde-batzordeak emandako doktrinaren bateratze-ahalmena, Eskualdeko Hauteskunde-batzordeko akordioen aurrean; horrek esan nahi du lege honetan ahalmen hori indartuko zaiola Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordeari, Eskualdeko Batzordeak hartutako erabakien inguruan.

Era berean, lege testu honetan emandako aldaketaren bidez, Hauteskunde-batzordeen errekurtsioak ebazteko epeak zehazten dira, hauteskunde-aldia izan zein ez izan. Lege honetan garrantzi handiagoko beste arlo batzuk ere jasotzen dira, ondorengo gaiekin zerikusia dutenak: mahaiak eratzea, Eusko Jaurlaritzaren kanpaina instituzionala, hauteskunde-kanpaina eta kanpaina-aurrean iragarkiak eta propaganda egitea, hedabide pribatuetan hauteskundeei buruzko informazioa ematea, bozketa eta botoak zenbatzeko prozesua, eta hauteskundeei bigarren aurrerakina ordaintzea.

Hauteskunde-mahaiak eratzeari dagokionez, hauteskunde-mahaiko kide izateko adina hirurogeita hamar urtera arte luzatu da, baina hautesle horientzat ez da nahitaezkoa izango kide izatea. Era berean, mahaiko kide izatea egokitu eta aitzakiaren bat jarri duenari ukatu egiten bazaio arrazoia, Eskualdeko Hauteskunde-batzordeek ukatzeko arrazoiak zein diren labur azaldu beharko dute.

Lege honen xedapen-zatia mugatzen da hainbat gairi buruzko informazioa ematera, herritarrei botoa emateko eskubidearen eta hauteskunde-prozeduraren gainean, aipatutako urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoaren edukian egindako egokitzapenak tarteko. Hauteskunde-kanpainei dagokienez, esan beharrekoa da hobetu egin dela hauteskundeei buruzko lege autonomikoaren 71. artikulua idazkera, argi eta garbi bereiztu baitira hauteskunde-kanpaina eta kanpaina-aurrea; hori dela eta, hauteskundeei buruzko propaganda kanpainak dirauen artean baino ezin izango da egin. Ondorioz, kanpaina-aurrean debekaturik egongo dira iragarkiak jartzea eta propaganda egitea, kartelen bidez edo prentsa eta irratietan halakoak sarturik. Horren helburua da informazioa sustatzea eta alderdi politikoen artean eztabaida programatikoa areagotzea, eta gainera, kostuak gutxiagotzea. Murrizketa horretan sakontzen da, %20 jaisten baita hautagaitzek egin dezaketen gastua hauteskunde-propaganda egiteko, hauteskunde-kanpainaren barruan kartelak jarritz baimendutako eremu komertzialetan.



Hedabide pribatuetan hauteskundeei buruzko informazioa zabaltzeari dagokionez, hedabide horiek hauteskunde-kanpaina bete beharreko arau eta printzipioak zehaztu dira, hain zuzen ere hedabide publikoentzat araututakoaren ildotik, eta hori guztia Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordeak kontrolatuko du.

Aipamen berezia merezi du bozkatzeko aukeretan izandako aldaketek; izan ere, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez arautu beharko du ikusmen-arazoak dituztenek erraztasunez bozkatu ahal izateko sistema bat. Horrez gainera, hautesleek zuzenean sar dezakete boto-papera kutxan. Orain arte, hauteskunde-mahaiko buruak soilik sar zezakeen. Bukatzeko, lege honetan X. kapitulua kentzen da, "Bozketa elektronikolari dagokion prozedura" izenburukoa, baita haren artikulatuen edukia ere; izan ere, 16 urtez indarrean egon eta gero, litekeena da ez aplikatzea, martxan jartzeko behar den Legebiltzarreko akordiorik ez baita egon denbora tarte horretan.

Hauteskundeetako bigarren aurrerakina eta hauteskundeetako diru-laguntzak ordaintzeari dagokionez, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordeak hala erabakitzen badu, hautagaitzak erakutsi beharko du legebiltzarkide kargua benetan hartu dela eta kargu horretan diharduela.

- III -

Lege hau Konstituzio Auzitegiaren eta hauteskunde-administrazioak proposatutako oharren doktrinan sartzeak suposatzen du kontuan izan behar dela, hala Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 1eko 149/2000 epaia, hauteskunde-batzordeetako administrazio-jardueraren legezkotasunaren kontrol judizialari buruzkoa, nola autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordearen erabakiak, hautaezintasun-kariei buruzko hauteskunde-legearen hainbat alderdi argitzeari buruzkoak. Horrekin batera, kontuan hartu da Hauteskunde-batzorde Nagusiak hauteskunde-garaian aginte publikoek egiten dituzten kanpaina instituzionalen muga inguruan esandakoa, eta baita Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordeak egindako iradokizuna ere, kanpaina horien inguruan zehapen-araubide bat egotea eskatzen baitzuen.

Esandakoaren ondorioz, hauteskunde-garaian erakundeek ezin izango dute kanpainarik egin aginte publikoek lortutakoei edo egindako lanei buruz, ez eta obra edo zerbitzurik inauguratu ere, nahiz eta haiek funtzionamenduan hasteko aukera izan garai horretan.

Azkenik, Mahaiaren boto-kontaktari dagokionez, argitu egiten da zein kasutan kontsideratu behar den boto bat baliogabea, martxoaren 15eko Hauteskunde Batzorde Zentralaren 1/2012 instrukzioari jarraiki.

- IV -

Hautatua izateko ezintasunari dagokionez, beste bi arrazoi gehitu dira euskal sozietate publikoetan edo nagusiki horien parte-hartzea duten sozietateetan lehendakari, zuzendari nagusi, gerente edo pareko beste edozein kargu dutenentzat, bai eta Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusiarentzat, erakunde hori osatzen duten sozietate publikoetako zuzendariarentzat eta organikoki sozietate horietan kokatzen diren komunikabideetako zuzendariarentzat. Hori guztia bat etorriko da estatuko, foru-aldundietako edo udaletako sozietate publikoetan pareko karguak dituztenek hautatuak izateko ezintasunarekin, edo RTVE korporazioaren lurralde-ordezkariek hautatuak izateko ezintasunarekin bat, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legean biltzen baita.

Bestalde, lege honetan hautagarri gisa definitzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zuzendariordea eta lurralde-ordezkaria, indarrean dagoen Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak funtzionarioen arteko izendapen askeko lanpostu gisa hartzen dituelako.

Indarrean den Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ildotik, beste batzuen artean, emakumeen aldeko zenbait ekintza positibo jaso dira, autonomia-erkidegoetako hauteskunde-prozesuetako berdintasunari begira; izan ere, hauteskunde-mahaietan egon beharra izatetik salbuesteko arrazoi gehiago zehaztu dira: haurdunaldian aurrera eginda eta edoskitzaroan egotea.

Lege honetan jasotzen den beste hobekuntza tekniko bat ekainaren 15eko 5/1990 Legean pezetatan ematen ziren kopuru guztiak eurotara bihurtzea izan da, eta gainera, bihurtze hori euro konstantetan egin da. Halaber, boto-txartelen formatu elektronikoa erabiltzeko eta horiek Eusko Jaurlaritzaren web-orritik deskargatzeko aukera ematen duten teknologia berriak erabiliko dira. Gainera, hauteskunde-dokumentazioa baliabide elektronikoen bidez betetzea onartzen da, baita aldatu diren zenbait organismoren eta erakunderen izenak eguneratu beharra ere.

- V -

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen xedapen-atalean aldaketa batzuk erantsi zaizkio bi xedapen gehigarri. Lehen Xedapen Gehigarriak euro konstanteetan eguneratzen ditu lege honen 151.1 eta 2 artikuluan aurreikusitako hautagaiantzako diru-laguntzen zenbateko guztiak. Eta Bigarren Xedapen Gehigarriak gaitasuna ematen dio Eusko Jaurlaritzari erakustaldi eta probak egin ditzan, bozkatu, botoak zenbatu edo hauteskunde-mahaiak kudeatu ahal izateko beste sistema elektronikoa batzuekin, etorkizunean horiek abian jartzea komeni den edo ez ikusteko.



Era berean, Lehen Xedapen Iragankorrak, kontuan izanda krisi ekonomikoko garai batean bizi gara, hauteskunde-garaian egin dezaketen gastuari murrizketa nabarmena jarri die hautagaitzei; eta Bigarren Xedapen Iragankorrak, berriz, hautagaitzei boto kopuruaren, jarlekuen eta hauteskunde-barrutiaren arabera eman beharreko diru-laguntzak izoztea proposatu du, eta beste horrenbeste egiten du hauteskundeei buruzko publizitatea eta propaganda bidaltzeko diru-laguntzari dagokionez. Murrizketa horiek guztiak indarrean sartuko dira 2012. urtearen ondoren egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

Indargabetzeko Xedapen Bakarrak eraginik gabe uzten du ekainaren 19ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen 15/1998 Legean aurreikusitako Lehen Azken Xedapena eta boto elektronikoari buruzko definizioen eranskina.

Azkenik, Lehen Azken Xedapenean, Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen zaio erregelamendu bidez gara dezan ezintasunen bat duten pertsonen nola hartuko duten parte Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, bereizkeriarik jasan gabe; hau da, pertsona horiek bozkatu ahal izateko baldintza zehatzak arautuko ditu, irisgarritasunari dagokionez, hain zuzen ere Estatuko legediak arlo horretan dioena garatuta.

**ARTIKULU BAKARRA.**- Ekainaren 15eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen 5/1990 Legearen aldaketa.

Ekainaren 15eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen 5/1990 Legea aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

**Bat.** 4. artikuluko 3. paragrafoaren a) hizkia honela idatzita geratzen da:

«a) *Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko sektore publikoan:*

1. *Sailburuorde, idazkari nagusi, zuzendari edo, horien antzeko, Administrazio orokorrean izendapen askeko, beste edozein kargu.*

2. *Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko administrazio instituzionaleko erakundeetan nahiz sektore publikoko gainerako erakundeetan lehendakari, zuzendari nagusi, idazkari nagusi, gerente edo horien pareko izendapen askeko beste edozein kargu betetzen dutenak, aurreko karguen pareko funtzio betearazleak dituztenak. Alabaina, Eusko Legebiltzarreko kideak, erakunde, herri-erakunde, edo zuzeneko nahiz zeharkako herri-partaidetzazko sozietateetako zuzendaritzako kidego organokoak edo Administrazio Kontseilukoak izan daitezke, horien izendapena Eusko Legebiltzarrari baldin badagokio.*

3. *Ararteko edo Arartekoaren Laguntzailea; Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko burua edo kidea; Ebazpen-Batzordeko burua edo kidea; Ekonomia eta Gizarte-Kontseiluko burua; eta erakunde horietan diharduten izendapen askeko karguak.*



4. *Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusia, erakunde hori osatzen duten sozietate publikoetako zuzendariak eta organikoki sozietate horietan kokatzen diren komunikabideetako zuzendariak.»*

**Bi.** 4. artikuluko 3. paragrafoaren b) hizkia honela idatzita geratzen da:

«b) *Estatuko sektore publikoan*

1. *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko burua edo kideak, epaileak, magistratuak, zerbitzu aktiboan dagoen fiskala, eta Estatuko Fiskal Nagusia.*

2. *Gobernuko lehendakariak, ministroak eta idazkari nagusiak, eta baita Estatuko administrazioan izendapen askekoa den beste edozein kargu betetzen dutenak; Estatuko gobernuak Euskadin dituen ordezkariak edo ordezkariordeak, eta antzeko beste agintariak, lurraldearen arabera beste eskumen batzuk izan arren; zuzenbide publikoko erakundeetan, erakunde autonomoetan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan, estatuko sozietate publikoetan edo estatuaren zuzeneko edo zeharkako partaidetza dutenetan, lehendakari, zuzendari nagusi edo idazkari nagusi direnak, edo izendapen askeko beste edozein kargu betetzen dutenak, edo kargu horien pareko funtzio betearazleak dituztenak. Atzerriko estatu baten edo nazioarteko erakunde baten aurrean izendapen bidez misio-buru direnak, egoitza atzerriko leku horretan izanda. Espainiako Bankuko gobernariak eta gobernariordeak; Mailegu Ofizialeko Erakundeko eta gainontzeko mailegu-erakunde ofizialetako lehendakariak eta zuzendariak. Hautesle Erroldaren Bulegoko zuzendariak eta Segurtasun Nuklearreko Kontseilu Nagusiko lehendakariak, kontseilariak eta idazkari nagusiak.*

3. *Estatuaren azpitik dauden lurralde-eremuetan, ministerioko maila goreneko kargua betetzen dutenak; lurralde-eremu mugatua duten erakunde autonomoetan lehendakari, zuzendari edo horien pareko karguak betetzen dituztenak, edo lurralde-eremu horietan gobernuaren ordezkari direnak; RTVE korporazioaren lurralde-ordezkarik direnak; Gizarte Segurantzaren lurralde bakoitzean kudeatzen duten erakundeetako lehendakari eta zuzendariak; Gobernuaren ordezkariak eta ordezkariordeak idazkari nagusiak; Hautesle Erroldaren Bulegoko probintziako ordezkariak; horiek guztiak osorik edo zati batean beren jurisdikzioan sartzen diren hautesbarrutietan joango dira.*

4. *Konstituzio Auzitegiko burua edo magistratuak, Estatu Kontseiluko edo Kontu Auzitegiko burua edo kontseilariak, Konstituzioaren 131.2 artikuluan zehazten den kontseiluko burua.*

5. *Herri Defendatzailea eta haren ondokoak».*

**Hiru.** 4. artikuluko 3. paragrafoaren e) hizkia honela idatzita geratzen da:

«e) *Lurralde Historikoen eta toki-administrazioen arlo publikoan:*



1. Lurralde Historikoko administrazio publikoko zuzendari nagusiak edo kargu horren baliokideak, eta foru erakunde autonomoetan, foru erakunde publiko enpresarialetan, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoetan, merkataritzako foru sozietateetan eta foru sozietate publikoetan lehendakari, zuzendari nagusi, gerente edo horien pareko beste edozein kargu betetzen dutenak.

2. Tokiko erakunde autonomoetan, kapital publikoko tokiko merkataritza sozietateetan, eta tokiko erakunde publiko enpresarialetan edo nagusiki horien parte hartzea dutenak.

Dena den, hautagai izateko aukera izango dute diputatu nagusiek edo foru-diputatuek, alkateek edo zinegotziek, baldin eta erakunde, enpresa edo sozietate horietako berezko kide badira, izendapen askekoak izan gabe, hain zuzen ere erakunde edo sozietate horien estatutuetan hala dagoelako berariaz aurreikusita.»

**Lau.** 4. artikuluko 4. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«4. Erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko edo artikuluko 3. paragrafoko a), b) eta e) hizkietan aipatu sozietateetan lehendakari, zuzendari nagusi, idazkari nagusi, gerente edo horien pareko beste edozein kargu betetzeko aplikatu behar den hautatzeko ezintasun-araubidea izango da akzio gehien edo parte-hartze handiena duen administrazioari dagokiona, kontuan izanda horien kapital sozialean administrazio publiko batek baino gehiagok parte hartzen duela. Berdintasun-kasuetan, hautagaitzaren lurraldea ordezkatzeko duenak erabakiko du hautatzeko zein ezintasun-araubide aplikatuko den.»

**Bost.** 4. artikuluko 5. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«5. - Artikulu honen 3. paragrafoan esandako kargu edo egitekoren batean jardun eta hautagai gisa aurkeztu daitezenez, hautatzeko ezintasuna dakarren kargua edo egitekoa erabat edo aldi baterako utzi egin dutela modu sinesgarriz egiaztatu beharko dute dagokien Hauteskunde-batzordearen aurrean.»

**Sei.** 4. artikuluko 6. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«6. Hautagaitza bateko izan eta hautaezintzat jotako kargu edo egitekoren batera iritsi daitezenez, egoera hori dagokion Hauteskunde-batzordeari jakinarazi beharko diote, eta honek aurkezturiko hautagaitzatik hautagaia kentzea aldarrikatuko du.»

**Zazpi.** 7. paragrafoa eransten zaio 4. artikuluari, honako testu honekin:

«7. Azkenik, hautaezinak izango dira:

a) Askatasunik gabeko zigorrera epai irmoz zigortuak, zigorra indarrean den garaian.

b) Epai bidez, nahiz eta irmoa ez izan, kondenatu dituzten pertsonak, ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren 6.2.b) artikuluan ezarritako delituengatik, eta baldintzetan.»

**Zortzi.** 5. artikuluko 2. paragrafoaren a) hizkia honela idatzita geratzen da:

«a) *Autonomia-erkidegoaren sektore publikoan:*

1. *Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko idazkari nagusia, kideak edo beste edozein kargudun; Lan Harremanen Kontseiluko, Kooperatiben Goren Kontseiluko, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluko edo antzeko izaerako organo aholku-emaileetako idazkari nagusia, kideak edo beste edozein kargudun; salbu eta legebiltzarkide izanik Legebiltzarrak eginkizun horiek betetzeko izendatutakoak.*
2. *Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren zerbitzura edo administrazio horretako edozein organoren edo erakunderen zerbitzura daudenak, zerbitzu horiek emateko araubidea edozein delarik, zuzendaritza-, kudeaketa- eta administrazio-eginkizun hutsak burutzen ez dituzten irakasleak, osasun-langileak eta ikerlariak izan ezik.*

**Bederatzi.** 20. artikuluko 4. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«4. *Legebiltzarreko letratuek, baita informatika-zerbitzuak ere, behar den aholkularitza juridiko eta teknikoa burutuko dituzte, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordeari agindutako eginkizunak betetzeko.»*

**Hamar.** 29. artikuluko e) hizkia honela idatzita geratzen da:

«e) *Lurralde Historikoko eta Eskualdeko Hauteskunde-batzordeek hauteskundeei buruzko araudia aplikatzeko orduan interpretazioak egitean dituzten irizpideak bateratzea.»*

**Hamaika.** 29. artikuluko j) hizkia honela idatzita geratzen da:

«j) *Sortzen diren arau-hausteak zuzentzea, baldin eta hori egiteko lana epaitegien esku utzi ez bada, eta egoki irizitako isunak jartzea, 2.700 €ra arte, baina lege honen 87.7 eta 132. artikuluetan xedatutakoetan izan ezik.»*

**Hamabi.** 29. artikuluko 1. paragrafoaren d) hizkia honela idatzita geratzen da:

«d) *Sortzen diren arau-hausteak zuzentzea, baldin eta hori egiteko lana epaitegien esku utzi ez bada, eta egoki irizitako isunak jartzea; isunok 1.200 eurora artekoak izango dira, Lurralde Historikoko Hauteskunde-batzordeen kasuan, eta 600 eurora artekoak Eskualdeko Hauteskunde-batzordeen kasuan. Hauteskunde-batzorde horiek gaiaren larritasunagatik beren eskumenekoak baino zehapen handiagoa behar duten gertakarien berri izango balute, horien berri hierarkikoki gorago dagoen hauteskunde-batzordeari jakinarazi beharko liokete, baina lege honen 66, 87.7 eta 132. artikuluetan aipatzen diren kasuetan izan ezik.*



Adierazitako isunak ordaindu ezean, dagokion Hauteskunde Batzordeak zorpekoaren egiaztatzea igorriko dio dagokion Foru Aldundiaren organo eskudunari isuna premiamendu-bidetik ordainarazteko».

**Hamahiru.** 3. paragrafoa eranstean zaitza 36. artikuluari, honako testu honekin:

«3. Nolanahi ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordearen akordioak, euskaraz zein gaztelaniaz idatzita, web orri batean sartuko dira, ondorio hauetarako gaituko dena.»

**Hamalau.** 38. artikuluko 3. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«3. Hauteskundeetarako atal, mahai eta lekuen behin betiko zerrenda, euskaraz eta gaztelaniaz, Hauteskunde Erroldaren Bulegoko web orrian argitaratuko da, bozketa izan baino hamar egun lehenago, eta horrekin batera, udaletan ere jendaurrean jarriko da informazio hori.»

**Hamabost.** 42. artikuluko 3. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«3. Hauteskunde-mahaietan titular edo ordezkari gisa parte hartzerik ez dutela adierazteko aukera izango dute, beharrezko agiriak edo, hala behar duenean, medikuaren egiaztatzea aurkezturik, ondorengoek:

- a) Gaixorik edo ospitalean diren pertsonak.
- b) Hauteskunde-barrutitik kanpora bizi direnak.
- c) Itsasoan direnak.
- d) Lege honetan ezarritakoaren arabera hautaezinez direnak.
- e) Haurdunaldian seigarren hilabetetik aurrera eginda dauden emakumeak eta amatasun-atsedenaren aldia daudenak.
- f) Bederatzi hilabetera arteko haurra edoskitzen ari direnak.
- g) 65 urte dituztenak edo hortik gorakoak.
- h) Beste edozein, ezina zuzitzeko arrazoiren bat badu eta agiri bidez frogatzen badu.»

**Hamasei.** 43. artikuluko 2. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«2. Mahai bakoitzeko lehendakaria eta kideak zozketa publiko bidez aukeratuko dituzte, kasuan kasuko mahaiko hautesle-zerrendan ageri diren guztien artean, baina irakurtzen eta idazten jakin eta hirurogeita hamar urte baino gutxiago dutenak izan beharko dute. Hirurogeita bost urtetik gorakoek uko egin ahal izango diote karguari zazpi eguneko epean. Mahaiko lehendakariak Batxilergoko edo Lanbide Heziketako bigarren mailako titulua edo horren baliokidea izan beharko du gutxienez, edo halakorik ezean, Derrigorrezko Bigarren Hezikuntzako graduatuarena edo horren baliokidea.»



**Hamazazpi.** 44. artikuluko 1. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

*«1. Izendapena egin eta hurrengo hiru egun igaro baino lehen, horren berri eman beharko zaie interesdunei. Jakinarazpenarekin batera, mahaietako kideei emango zaie izango dituzten eginkizunei buruzko eskuliburu bat, euskaraz eta gaztelaniaz. Hauteskunde-mahaietako lehendakari eta kide izendatu dituztenek zazpi eguneko epea izango dute Eskualdeko Hauteskunde-batzordean adierazteko zergatik ezin duten kargua onartu; zurrizko moduko arrazoa izan beharko du, eta agiri bidez frogatzeko modukoa. Batzordeak gaiari buruzko erabakia hartzeko bost eguneko epea izango du, eta ezingo da errekurtsorik jarri erabakitakoaren aurka. Dena delako pertsona ordezkatu beharra dagoela erabakitzen badu, horren berri emango dio lehen ordezkoari. Eskualdeetako Hauteskunde-batzordeek, labur bada ere, azaldu egin beharko dute zergatik ez dituzten onartu dena delako pertsonak mahaiko kide ez izateko emandako arrazoiak.»*

**Hemezortzi.** 46. artikuluko 4. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

*«3. Dekretuan zehaztuko da bozketa noiz izango den; hain zuzen ere, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, berrogeita hamalagarren egunean izan beharko da.»*

**Hemeretzi.** 4. paragrafoa eransten zaio 46. artikuluari, honako idazketa honekin:

*«4. Hauteskundeetarako deia egiteko Dekretua argitaratuko den egunean bertan jarriko da indarrean.»*

**Hogei.** 50. artikuluko 2. paragrafoaren b) hizkia honela idatzita geratzen da:

*«b) Hautagaien eta ordezkoen izen-abizenak, eta, hala egokituz gero, goitizena edo ezizena, helbide zehatza, baita zerrenda bakoitzean kokapen-ordena ere. Hauteskundeetarako federazioak edo koalizioak izan daitezenean, hautagaiaren izenaren ondoren zein alderdi edo federaziotako den berariaz zehaztu ahal izango da, alderdi edo federazio hori barruti berean bere hautagaitzarekin aurkezten ez bada. Hautagaien izenekin batera independente egoera jaso daiteke.»*

**Hogeita bat.** 5. paragrafoa eransten zaio 50. artikuluari, honako idazketa honekin:

*«5. Aurreko paragrafoan adierazitakoari dagokionez, hautagaitzek jarraipen bat osatzen dute, eta ordezkoek, berriz, zerrendako 25 zenbakiko titularrarekin, gehienez, 6 izeneko zati berri bat, hautagaitza bakoitzak dituen ordezko-kopuruaren arabera; horri ere %50eko kuota aplikatu behar zaio, aurreko zatiei bezala.»*

**Hogeita bi.** 66. artikulua honela idatzita geratzen da:

«66. artikulua.

*Lurralde Historikoetako Hauteskunde-batzordeek 2.700 euro arteko isuna jarriko diete alderdi, federazio, koalizio eta hautesle-elkarteei, eta hala behar badu, hautagaiei, horien hautagaitzak aldarrikatu eta gero, beren hautagai-zerrenda osoa hauteskundeetatik kentzen badute.»*

**Hogeita hiru.** 68. artikuluko 3. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«3. Hauteskunde-prozesuan, Eusko Jaurlaritzak kanpaina instituzional bat egiteko aukera izango du, herritarrei hauek jakinarazteko: hauteskundeak noiz eta non izango diren, nortzuk diren hautesleak, nola bozkatzeko den, posta bidez bozkatzeko zer egin behar den -atzerrian bizi direnak barne- eta bozkatzeko prozesuari buruzko bestelako inguruabar guztien berri emateko; hori egitean ez du, inoiz ere, hautesleen boto-aukeran eragin beharko. Kanpaina instituzional hori iragartzeko, autonomia-erkidegoarenak diren hedabide publikoetako doako tarteak baliatuko ditu gobernua, eta baita estatuarenak izanik ere, dena delako autonomia-erkidegora mugatzen diren hedabide publikoetako doako tarteak. Kanpaina horretan bermatuko da bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.»

**Hogeita lau.** 68 Bis artikulua eransten da, honako idazketa honekin:

«68 Bis artikulua.

1. Hauteskunderen deialdia egiten denetik hauteskundeak benetan izan arteko denbora-tartean, aginte publikoek eta Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzko abenduaren 23ko 6/2010 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren erakundeek ezin izango dute publizitate-kanpainarik edo komunikazio instituzionalik egin edo horien berri hedatu; salbuespen bakarra lege honen 68.3 artikuluan esaten dena, eta interes publikoa babesteko edo zerbitzu publikoak behar bezala aritzeko ezinbestekoa den komunikazioa izango da. Era berean, debekaturik egongo da aginte publikoek antolatutako edo finantzaturako edozein jardura edo ospakizun, baldin eta horietan legegintzaldian egindakoen edo lortutakoen aipamenean bat egiten bada, edo horietan erabiltzen diren irudiak, adierazpenak edo logotipoak hauteskundeetan parte hartuko duen alderdiren batek erabiltzen dituenak edo antzekoak baldin badira.

2. Era berean, denbora tarte horretan ezin izango da obra edo zerbitzu publikorik edo horien proiekturik inauguratzeko ekitaldirik egin edo horren berri eman, eta aurkezpen edo erakusketarik ere ezin izango da egin; dena den, posible izango da obra edo zerbitzu horiek aldi horretan lanean hastea.

3. Artikulu honetan aurreikusitako debekuak betetzen ez badira, Hauteskunde-administrazioak isuna jartzeko aukera izango du; Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordeak jartzen badu 2.700 eurokoa izango da isun hori, eta Lurralde Historikoen Hauteskunde-batzordea bada, berriz, 1.200 eurokoa.»



**Hogeita bost.** 71. artikulua honela idatzita geratzen da:

«71. artikulua.

1. *Debekatu egiten zaie hautagaitza, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteetako kideei botoak bereganatzeko asmoa duten iragarpen-ekintzak egitea, Lege honen 68. artikulua 2. paragrafoan jartzen den aldiak kanpo,. Ondorio horietarako, iragarpen-ekintzat hauek joko dira, bertan botoa zuzenean eskatzen ez bada ere:*

a) *Iragarkiak sartzea hedabide publiko zein pribatuetan*  
b) *Bide publikoan publizitate-heziak, banderatoak, pankartak, kartelak edo antzekoak ipintzea*

2. *Ez dira aurreko zenbakian araupetzen den debekuan sartuko alderdi, federazio eta hauteskunde-koalizioen ohiko jarduerak, baldin eta ideiak eta iritziak zabaltzeko eta, oro har, ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien egitekoak gauzatzeko zuzentzen badira.*

3. *Bereziki, hauteskunde-prozesuan izendatutako hautagaitzek, honako ekintza hauek burutu ahal izango dituzte, botoa eskatzen ez badute:*

a) *posta bidezko botoaren izapideei buruzko informazioa eman*

b) *hautagaiak eta hauteskunde-programak aurkeztu ekitaldietan, mitinetan edota liburuxkak edo kartelak banatuz*

c) *hautagaiak eta horien ordezkariak elkarrizketetan eta mahai-inguruetan ezagutzera ematea edozein hedabidetan, baita hautagaien argazkiak erakustea ere*

d) *hautagaitzaren izena, siglak, sinboloak edo hauteskunde-sloganak erakustea hautagaitzaren egoitzetako eta lokaletako kanpoko fatxadan*

e) *web orriak edo antzeko baliabideak sortu edo erabili, edota posta edo mezu elektronikoak bidali hautagaiak eta hauteskunde-programa ezagutzera emateko*

f) *hautagaiei eta hauteskunde-programari buruzko artikulua edo informazioak zabaltzea, hori egiteko kontraturik ez bada egin behar.*

4. *Hala izanik ere, hauteskundeetako deia egiten denetik hauteskunde-kanpaina legez hasi arte, talde politiko eta hautagaitzei debekatu egiten zaie hauteskundeetako iragarkiak eta propaganda egitea, zuzenean edo hirugarrenen bitartez, kartel, merkataritzako euskarri edo edozein hedabideren bidez, baita baliabide digitalen bidez ere.*

5. *Arestian adierazitako epean, ezin izango da hautagaien izena edo argazkia edo talde politikoaren izena edo siglak adierazten dituen materialik banatu (giltzatak, bolalumak, metxeroak, pinak edo pareko objektuak), hauteskundeetako propaganda egiteko. Era berean,*

*debekatua dago etxe pribatuen kanpoko aldean hautagaien argazkiak edo alderdi politiko baten izena, siglak edo sinboloak jartzea.*

*6. Talde politikoek edo hautagaitzek artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan debekatutako jarduerak burutzen badituzte, ezingo dituzte artikuluko 2. paragrafoan zehaztutako alderdi politiko, federazio edo koalizioen ohiko funtzioen jardunarekin justifikatu.*

*7. Bozketaren egunean ez eta bezperan ere, hautagaitza, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteetako kideek ez dute hedabidetan botoa hartzera jotzeko inolako agiriko agerpen eta adierazpenik egiterik izango.»*

**Hogeita sei.** 72. artikulua kendu da.

**Hogeita zazpi.** 75. artikuluko 2. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

*«2. Publizitate mota horretan, hautagai-zerrenden gastua ezin da izan lege honen 147.2 artikuluan aurreikusitako gastu-mugaren ehuneko 20 baino gehiagokoa.»*

**Hogeita zortzi.** 79. artikulua honela idatzita geratzen da:

*«79. artikulua.*

*«Baimenik gabeko tokietan hautagaitzek edozein motatako propaganda grafikoak jartzeagatik edo idazketak egiteagatik, udalak 6.000 eurorainoko zigorrak jarri ahal izango ditu, horretarako abiarazitako espedientearen bitartez eta doakionari entzun ondoren.»*

**Hogeita bederatzia.** V. tituluaren II. Kapituluaren laugarren ataleko izenburua honela idatzita geratzen da:

*«Laugarren Atala. Hauteskunde-kanpainan komunikabideak erabiltzea»*

**Hogeita hamar.** 81. artikulua honela idatzita geratzen da:

*«81. Artikulua.*

1. Hauteskunde-kanpainan, hautagaitzek publizitatea kontratatu ahal izango dute egunkarrietan eta titulartasun pribatuko irrati-emisoreetan. Publizitate horretan gastatutakoak ezingo du alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle-elkarteetarako Lege honetako 147.2 artikuluan aurreikusitako gastu-mugaren 100eko 20 gainditu.

2. Hauteskunde-publizitate horretarako ezarritako tarifek ezin dituzte publizitate komertzialerako indarrean dauden tarifak gainditu, eta ezin da hautagaitzen artean bereizkeriarik egon hauteskunde-publizitateko tarte horien tarifei eta kokapenari dagokionez.



3. Ezingo dira hauteskunde-publizitateko tarteak kontratatu titulartasun publikoko hedabideetan ez eta titulartasun pribatuko telebista-emisoreetan ere.

4. Hauteskunde-kanpainan, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteek doako tarteak erabili ahal izango dituzte Autonomia Erkidegoko hedabide publikoetan eta beren jarduna Autonomia Erkidegora mugatuta duten estatuko titulartasunekoetan.

5. Tarte horien banaketa, bakoitzak Eusko Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeetan lortutako boto-kopuru osoaren arabera egingo da».

**Hogeita hamaika.** 85. artikuluko testua artikuluko horren 1. paragrafoa izango da.

**Hogeita hamabi.** 2. paragrafoa eransten zaio 85. artikuluari, honako idazketarekin:

*«2. Hauteskundeetarako deia egiten denetik bozketa-eguna izan arte, emisore pribatuek aniztasun- eta berdintasun-printzipioak errespetatu beharko dituzte eta proportzionaltasun- eta neutraltasun-printzipioak ere bai, Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 66.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.»*

**Hogeita hamahiru.** 87. artikuluko 7. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

*«7. Bozketa egunaren aurreko bost egunetan debekatuta egongo da edozein komunikabidek, digitek barne, hauteskunderi buruzko zundaketarik argitaratzea, horiek ezagutzera ematea eta erreproduzitzea.*

*Bozketa egunean ere, arratsaldeko 8:00ak baino lehenago debekatuta egongo da edozein komunikabidek hauteskunderi buruzko zundaketarik nahiz behin-behingo emaitzarik argitaratzea, horiek ezagutzera ematea eta erreproduzitzea.*

*Aurreko bi suposizioetan aurreikusitakoa betetzen ez bada, Hauteskunde-batzordeak 3.000 eta 30.000 euro bitarteko diru-zehapena ezarriko du.»*

**Hogeita hamalau.** 88. artikuluko 1. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

*«1. Eusko Jaurlaritzak, dekretu bidez, boto-txartelen eta gutun-azalen eredu ofiziala eta horiek bete beharreko ezaugarriak zehaztuko ditu, baita hautestontzi, kabina eta lege honek aurreikusitako gainerako agiriak ere. Dekretu horretan zehaztuko dira boto-txartel, gutun-azal eta gainerako hauteskunde-agiriak inprimatzeko, prestatzeko eta banatzeko baldintzak. Halaber, dekretu horretan formatu elektronikoa ezarri ahal izango da hauteskundeetara aurkeztuko den hautagaien boto-txarteletarako, zein hauteskundeetako zenbait inprimakietarako ere; dena dela, Eusko Jaurlaritzako web gunetik telematikoki jaitsi ahal izango dira».*



**Hogeita hamabost.** 92. artikuluko 5. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«5. Artekari bakoitzari buruzko taloi-orriek lau zati izan beharko dituzte: bat, jatorrizkoa, ordezkariak edo honen eskudunak gorde dezan; bigarrena artekariari emango zaio, egiaztagutuntzat erabil dezan, eta hirugarrena dagokion Eskualdeko Hauteskunde-batzordeari bidaliko zaio, bertako kide deneko Hauteskunde-mahaiari eskuratu diezaion; eta laugarrena ere Hauteskunde-batzorde horri bidaliko zaio, artekariak bere botoa bertan emateko eskubidea dueneko Mahaiari, bertako hautesle-zerrendatik ken dezan, baldin eta jarduten duen hauteskunde-mahai horri dagokion barrutiko hauteslea bada.

**Hogeita hamasei.** 103. artikulua honela idatzita geratzen da:

«103. Artikulua.

Mahaia eratu ondoren, bozketa Lehendakariak «bozketa hasten da», nahiz, «empieza la votación» hitzak ozenki esanaz bat hasiko da.»

**Hogeita hamazazpi.** 104. artikuluko 3. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«3. Irakurtzen ez dakiten hautesleek edo, ezintasun fisikoagatik, ezin badute boto-txartela aukeratu edo ezin badiote mahaiko lehendakariari eman, bere konfiantzazko pertsona batez baliatu ahal izango dute. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak, dekretu bidez, hautesle itsuek edo ikusmen ezintasuna dutenek bozkatzeko eskubidea baliatu ahal izateko prozedura arautuko du; horrela, pertsonalki eta erraztasunez eman ahal izango dute botoa, eta isilpeko botoa bermatuta.»

**Hogeita hemezortzi.** 107. artikuluko 1. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«1. Hautesleak berak mahaiko lehendakariari botoaren gutun-azala emango dio. Ondoren, horrek, uneoro gutun-azala denek ikusteko moduan dela, ozenki esango ditu hauteslearen izen-abizenak, eta hau adieraziz: “botoa eman du”, hautesleari emango dio hautestontzian sar dezan.»

**Hogeita hemeretzi.** 109. artikulua honela idatzita geratzen da:

«Ataletako lokaletan hauek sartuko dira soilik: bertako hautesleak, hautagaitzetako lurralde ordezkariak eta horien kideak, haien ahaldunak eta artekariak; notarioak, hauteskundeei buruzko edozein ekintzari fedea emateko, bozketa sekretuari kontra egin gabe; Hauteskunde-batzordeetako kideak eta instrukzioko epaileak eta haien eskuordetuak, haien kargua betetzeak hala eskatzen duen guztietan; mahaiko lehendakariak eskatutako agintaritzaren agenteak; Euskal Administrazioak izendatutako pertsonak, besteak beste, hauteskundeei buruzko informazioa lortzeko; gaixoen, ezinduen, eta irakurtzen eta idazten ez dakitenen laguntzaileak; aipatu lokaletako hauteskunde-materiala mantentzeko arduradunak.»



**Berrogei.** 112. artikuluko 1. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

*«1. Arratsaldeko zortzietan lehendakariak ozenki esango du: «bozketa bukatzera doa» nahiz, «se va a concluir la votación», eta ez dio inor gehiagori hauteslekuan sartzen utziko. Lehendakariak bertan dauden hautesleren bat oraindik bere botoa eman gabe dagoen galdetu, eta ondoren eman daitezen botoak onartu egingo dira.»*

**Berrogeita bat.** 112. artikuluko 3. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

*«3. Ondoren, mahaiak osatzen dituztenek, eta eginkizunak betetzen dituzten barrutiko hautesleak diren artekariak bozkatuko dute; eta mahaiko erroldan ez dauden artekarien Hauteskunde-mahaia zehaztuko da boto-emaileen zerrenda zenbakidunean.»*

**Berrogeita bi.** 115. artikulua honela idatzita geratzen da:

*«115 .artikulua.- Honako hauek izango dira boto baliogabeak:*

*a) Eredutik ofizialez besteko gutun-azal edo txartelez emandako botoa, eta bai gutun-azalik gabeko txartelez emandakoa edo hautagai-zerrenda berezian boto-txartel bat baino gehiago daramatzan gutun-azalean emandakoa ere. Gutun-azal batean hautagaitza beraren txartel bat baino gehiago egonez gero, boto bakar bat bailitzan kontatuko da.*

*b) Boto-txarteletako hautagaien izenak aldatuta, gehituta edo zirimarratuta edo bertako izenen hurrenkera aldatuta dituen txartelean emandako botoa. Dena dela, boto balioduna izango da betiere hauteslearen bozketa-asmoaren inguruko zalantzarik sortzen ez duen seinale edo markaren bat duen txartelean emandako botoa.*

*c) Irainak edo botoaz besteko edozein hitz edo esamolde daramatzan botoa edota borondatez edo nahita egindako edozein aldaketa duen botoa.*

*d) Mahaiari ez dagokion beste barrutiko boto-txartelaz ematen den botoa.*

*e) Gutun-azalak gainean ezaupideak daramatzatenak».*

**Berrogeita hiru.** 124. Bis artikulua eransten da, honako idazketarekin.

*«124 Bis artikulua.*

*1. Boto-kontaketa orokorreko egunean, eta hori gauzatzen hasi aurretik, Lurralde Historikoko Hauteskunde-batzorde bakoitzak Hauteskunde-mahaia osatuko du, goizeko zortzietan, bertaratutako hautagaitzek izendatutako artekariekin.*



2. Jarraian, aipatutako Hauteskunde-batzordeko lehendakariak hautestontzian edo hautestontzietan sartuko ditu atzerrian bizi diren egoiliarren boto-txartelak, ordura arte jasotakoak, eta idazkariak boto-emateen izenak idatziko ditu horretarako zerrendan.

3. Ondoren, batzordeak boto horiek kontatuko ditu eta emaitzak kontaketa orokorrera gehituko ditu».

**Berrogeita lau.** 129. artikuluko 9. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«9. Era berean, Batzordeak aktaren kopia emango dio bertan dagoen Euskal Administrazioaren ordezkariari, ezagutzeko, informatzeko eta herritarrei zabaltzeko xede hutsez».

**Berrogeita bost.** 132. artikulua honela idatzita geratzen da:

«132. artikulua.

Aginduzko eta debekuzko hauteskunde-arauak haustea, delitua izan gabe, eskumena duen hauteskunde-batzordeak zigortuko du, lege honen 29.j) eta 30.1.d) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Isuna 300 eta 3.000 euro artekoa izango da agintariak edo funtzionarioak badira, eta partikularrak badira 100 eta 1.000 euro artekoa, lege honetan kopuru handiagoa ezartzen bada salbu.»

**Berrogeita sei.** Kendu egiten da V. tituluko X. kapitulua, "Bozketa elektronikoari dagokion prozedura" izenburukoa, baita haren eduki artikulatua ere.

**Berrogeita zazpi.** V. tituluko XI. kapituluaren numerazioa eta izenburua honela geratzen dira:

«X. KAPITULUA.

POSTA BIDEZKO BOTOA ETA ATZERRIAN BIZI DIREN EGOILIARRENA»

**Berrogeita zortzi.** 132. Oeties artikulua honela numeratuta eta idatzita geratzen da:

«132 bis artikulua.

1. Bozketa-egunean hautesleek aurreikusiz gero boto eskubideaz baliatzeko dagokien herrian ez direla egongo edo ezin direla bertaratu, postaz eman dezakete botoa, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 72. eta 73. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2. Hauteskundeen deialdia egin eta gauzatu arte, atzerrian aldi baterako daudenek posta bidezko botoa eman dezakete, berme guztiekin, aipaturiko Lege Organikoaren 74. artikuluan ezarritakoaren eta hori garatzen duen indarreko hauteskunde araudian ezarritako prozeduraren arabera.»

**Berrogeita bederlatzi.** 132 Ter artikulua eransten da, honako idazketarekin:

«132 Ter artikulua.

*Bizilekua atzerrian dutenen hautesle-errodan inskribatutako hautesleak aldeztetik baliatu daitezke botoa emateko eskubideaz, Kotsuletzeko egoitzetan edo Bulegoetan horretarako jarritako hautestontzian botoa eta beharrezko dokumentazioa sartuz, edota posta bidezko botoa emanez, Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.»*

**Berrogeita hamar.** 134. artikulua honela idatzita geratzen da:

«134. artikulua.

*1. Lege honetan errekurtsioa edo aurka egiteko bide judiziala ezartzen ez den bitartean eta lege honen 44.1 artikuluan aurreikusitakoa salbu, hauteskunde-batzordeen erabakien kontra errekurtsioa jartzeko aukera egongo da goragoko kategoriako batzordearen aurrean; horrek hauteskunde-epe barruan ebazpena eman beharko du bost eguneko epean, eta, epe horretatik kanpo, hamar egunetan, bi kasuetan errekurtsioa jartzen denetik kontatzen hasita.*

*2. Erabakia jakinarazi eta hurrengo hogeita lau orduren buruan aurkeztu egingo da eman duen batzordearen aurrean; horrek, bere txostenarekin batera, erabakia eman behar duen batzordeari bidali beharko dio berrogeita zortzi orduko epean. Azken horren erabakiaren aurka ezin da administrazio-errekurtsorik aurkeztu.»*

**Berrogeita hamaika.** 9. paragrafoa eransten zaio 144. artikuluari, honako idazketarekin:

«9. Artikulu honen 7. paragrafoan aurreikusitako bigarren aurrerakina jaso ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordeak horrela adosten badu, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteek ogasunaren ardura duen sailari aurkeztu beharko diote Eusko Legebiltzarreko Mahaia emandako ziurtagiria. Horren bidez, zalantzarik gabe egiaztatuko da aipaturiko talde politikoaren hautetsia Eusko Legebiltzarreko kide izatera heldu dela, baita hautatutako karguan benetan jardungo duela ere, aurrerakin hori sortu baita aukera horregatik.

**Berrogeita hamabi.** 145. artikuluko 4. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«4. Edozein erakundek, pertsona fisikorik edo juridikorik 10.000 euro baino gehiagoko ekarpena egitea, deialdiko hauteskundeetarako alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-elkarte batek berak dirua biltzeko irekitako kontuetan.»



**Berrogeita hamahiru.** 146. artikuluko h) hizkia honela idatzita geratzen da:

*h) Hauteskundeetarako behar diren bulegoak eta zerbitzuak antolatzeko eta lan egiteko beharrezko diren guztiak, baita boto-asmoari buruzko inkestak eta zundaketak ere, besteak beste hauteskundeetarako zerbitzu beharrezkoak diren heinean».*

**Berrogeita hamalau.** 147. artikuluko 2. paragrafoa honela idatzita geratzen da:

*«2. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, hauteskunde-gastuen muga izango da alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-elkarte bakoitzak hautagai-zerrendak aurkezten dituen barrutietako legezko biztanleriari dagokion biztanleen kopurua 0,42 euroz biderkatuz ateratzen dena. Eragiketa horretatik ateratzen den kopuru horri 202.400 euro gehitu ahal izango zaizkio hautagaitzak aurkezten dituzten barruti bakoitzeko.»*

**Berrogeita hamabost.** 151. artikulua honela idatzita geratzen da:

*«151. artikulua.*

*1. Euskal Autonomia Erkidegoak diru-laguntzak emango ditu alderdi politiko, federazio, hauteskunde-koalizio edo hautesle-elkarteen hauteskunde-gastuei aurre egiteko, arau hauen arabera:*

- a) 26.761,89 euro Eusko Legebiltzarrean eskuratutako jarleku bakoitzeko.*
- b) Hautagaitza bakoitzak lortutako boto bakoitzeko 0,90 euro, betiere zerrenda-kide horietako batek gutxienez Legebiltzarreko jarlekua lortu badu dagokion hauteskunde-barrutian.*
- c) Hauteskunde-barruti bakoitzeko 44.603,13 euro, hauteskunde-barruti bakoitzeko gutxienez jarleku bat lortu dutenei.*

*2. Aurreko paragrafoan aipaturiko diru-laguntzaz gain, diruz lagunduko dira propaganda, gutun-azalak eta boto-txartelak edo bestelako hauteskunde-iragarkiak hautesleei zuzenean eta banan-banan bidaltzeak sortutako hauteskunde-gastuak, hurrengoaren arabera:*

- a) Hautesle bakoitzeko 0,23 euro ordainduko dira, baldin eta erreferentziako hautagaiek hautagaitza aurkeztu badute barruti horietako bakoitzean eta jarlekua lortu badute.*
- b) Diruz lagundutako kopurua ez da egongo lege honen 147. artikuluan aurreikusitako mugaren barruan, betiere paragrafo honek aipaturiko jardueraren benetako lotura egiaztatu bada.*

*3.- Artikulu honen 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako hauteskundeetako diru-laguntzen bai sortzapena bai kopurua alderdi politikoei ordaintzeko, Eusko Legebiltzarreko kide izatera heldu direla eta hautatutako karguan benetan jarduten dutela erakutsi beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordeak hala adostuz gero. Horiek egiaztatzea eta horien ziurtagiria egitea Eusko Legebiltzarreko gobernu-organoari dagokio.*

4.- Talde-politiko bakoitzari emandako hauteskundeetarako diru-laguntzak ez du aitortutako eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak bidezkotzat jotako hauteskunde-gastuetako kopurua baino handiagoa izan behar.»

**Berrogeita hamasei.** Laugarren Xedapen Gehigarria honela idatzita geratzen da:

«Laugarrena.- Lege honetan aurreikusitako zenbatekoak euro konstanteei dagozkie. Eusko Jaurlaritzan ogasunaren ardura duen sailaren aginduz, zenbateko horiek eguneratu egingo dira hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi egunetan.»

**LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.-** Hauteskundeetako diru-laguntzak eguneratzea.

Hautagaiei jarleku, boto eta hauteskunde-barrutien arabera ematen zaizkien diru-laguntzak eta hauteskunde-publizitate eta -propaganda bidaltzearekin lotutakoak 2013ko urriaren 1ean eguneratu dira, lege honen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.-** Sistema elektronikoen testak.

1. Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen zaio Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan beharrezkotzat jotako proba pilotuak egiteko, autonomia-erkidegoko prozesuari hobekien egokitzen zaizkion teknologia berriak erabilita, teknologia horiek ezartzea posible den aztertzeo xedez.

2. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera probatu beharreko sistemek botoaren sekretua eta zenbaketaren gardentasuna bermatu beharko dituzte.

**LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA.-** Gastuaren mugak murriztea.

2012 ondorengo Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeetan, Lege horren 147.2 artikuluan aurreikusitako hautagaitzako hauteskunde-gastuaren muga %15 murriztuko da eguneratutako zenbatekoaren gaineratik, ogasunaren ardura duen sailaren aginduz, hauteskunde autonomikoetarako deialdia izan eta hurrengo zazpi egunetan.

**BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.-** Hauteskundeetarako diru-laguntzak izoztea.

Hautagaitzei hauteskundeetarako ematen zaizkien diru-laguntza publikoen zenbatekoak, bai boto, jarleku eta hauteskunde-barrutiko ematen zaizkienak, bai lege honen 151.1 eta 2 artikuluan aurreikusitako hauteskunde-publizitate eta -propaganda bidaltzearekin lotutakoak, izoztutzat joko dira 2013ko abenduaren 31n, Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak egingo diren urteko ekitaldirako.

**INDARGABETZEKO XEDAPENA.-** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira Lehen Azken Xedapena eta boto elektronikoari buruzko Definizioen Eranskina, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldatzeko ekainaren 19ko 15/1998 Legeak emandako idazketetan.

**LEHEN AZKEN XEDAPENA.-** Irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak.

Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez ezarriko ditu irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak garatu bitartean, Ezintasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun orokorrari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Estatuko Legearen Bosgarren Azken Xedapenean aurreikusitakoaren arabera.

**BIGARREN AZKEN XEDAPENA.-** Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean lege hau.